

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4965

EBAZPENA, 2022ko irailaren 27koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Sociedad Financiera y Minera SA merkataritza-sozietateak sustatutako «Buruntza, 4.642. zk.» (Andoain, Gipuzkoa) emakidaren handitzeari dagokion ustiapen-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

AURREKARIAK

Ingurumeneko sailburuordearen 1996ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bitartez, «Buruntza» (Andoain) kareharri-harrobiko ustiapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2015eko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez, baimena eman zen atmosfera kutsa lezaketan jarduerak egiteko, eta aldatu egin zen Andoaingo udal-mugar-tean (Gipuzkoa) Sociedad Financiera y Minera SAk sustatzen duen Buruntza harrobia-ren ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

2019ko abenduaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariek ingurumen-organo honi eskatu zion ingurumen-inpaktuaren adierazpen bat emateko, zehazki, Sociedad Financiera y Minera merkataritza-sozietateak Andoain-en eta Lasarte-Orian sustatzen duen «Buruntza, 4.642. zk.» emakidaren handitzeari dagokion ustiapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena; betiere Euskal Autonomia Erkide-goko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Ustiapen-proiektu berriaren perimetroa baimendutako ustiategiarena baino 2,87 ha handiagoa izango da.

2020ko abuztuaren 17an, 2021eko urtarrilaren 20an eta 2021eko maiatzaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzak dokumentazio osagarria bidali zuen, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak egindako errekerimenduei erantzuteko.

2021eko maiatzaren 4an bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren (ingurumen-inpaktuaren azterketa berri bat ere badu), egiaztatu da ustiapen-proiektuak, ustiapen-azalerari 2,87 ha gehitzea kontuan hartzeaz gain, orain arte jasotako gainerako dokumentazioan bezala, harrobiaren goiko aldera iristeko pista berri bat egitea jasotzen duela. Beraz, «Buruntza, 4.642 zk.» ustiapen-emakida handitzeko proiektuak 3,8 ha-ko azalerari eragiten dio.

Jendaurreko informazioaren izapidea eta eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea 2019ko apirilean egin zen, «Buruntza, 4.642 zk.» ustiapen-emakidari 2,87 ha gehitzeko proiektu bati zegokion dokumentazioarekin. Beraz, ingurumen-inpaktuaren azterketa berrian aurkeztutako aldaketek hasiera batean aurreikusitakoez bestelako ingurumen-ondorio garrantzitsuak izango dituzte.

Horrenbestez, 2021eko maiatzaren 13an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak Gipuzkoako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi zion aurkeztutako eskaerak ez zituela betetzen izapidetzeko onartzeko eskatzen ziren baldintza guztiak, eta, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 38. artikuluko 2. apartatuaren arabera, jendaurreko informazioaren eta kontsulten beste izapide bat egiteko eskatu zion, lege horren 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

2021eko ekainaren 21ean, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak jendaurrean jarri zituen proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, eta kontsulta egin zien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.

2022ko urtarrilaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpen bat egiteko eskatu zuen, zehazki, Sociedad Financiera y Minera merkataritza-sozietateak Andoainen (Gipuzkoa) sustatutako «Buruntza, 4642. zk.» emakidaren handitzeari dagokiona; betiere Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Dokumentazioa aztertu ondoren, 2022ko apirilaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari jakinarazi zion zer alderdi zuzendu behar ziren eskabidea izapidetzen jarraitu ahal izateko.

2022ko uztailaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzak dokumentazio osagarria bidali zuen espedientea zuzentzeko.

Eskabideak, osatu ondoren, honako agiri hauek jasotzen ditu:

– Andoaingo eta Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) udal-mugarteetan dagoen «Buruntza, 4642 zk.» C) ataleko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakidaren ustiapena handitzeko proiektua. 2018ko azaroa.

– Andoaingo eta Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) udal-mugarteetan dagoen «Buruntza, 4642 zk.» C) ataleko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakida handitzeko proiektuaren Zaharberitze Plana. 2021eko martxoan eguneratua.

– Andoaingo eta Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) udal-mugarteetan dagoen «Buruntza, 4642 zk.» C) ataleko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakidaren ustiapena handitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketa. 2022ko urtarrilean eguneratua. Dokumentu honek azterketa hauek ditu:

- «Buruntza, 4642 zk.» harrobiaren handitzeak Ernioko unitate hidrogeologikoan duen eragin hidrogeologikoa. 2020ko urtarrila.

- Andoaingo eta Lasarte-Oriako «Buruntza 4.642 zk.» harrobia handitzeko ustiapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpenerako dokumentazio osagarria: landarediari eta faunari buruzko edukiak. 2020ko ekaina.

- Andoaingo eta Lasarte-Oriako «Buruntza 4.642 zk.» harrobia handitzeko ustiapen-proiektua aldatzeko dokumentazio osagarria: landaredia, fauna, paisaia eta arkeologia. 2021eko azaroa.

– Andoaingo eta Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) udal-mugarteetan dagoen «Buruntza, 4642 zk.» C) ataleko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakidaren ustiapena handitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketa. 2022ko ekainean eguneratutako memoria.

2022ko azaroaren 16a, asteazkena

- Jendaurreko informazioaren izapidearen emaitzei buruzko dokumentuak.
- Eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidearen emaitzei buruzko dokumentuak.
- Egindako kontsulten emaitza proiektuaren azken proposamenean sartzea eta horiek nola hartu diren kontuan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraikiz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta horien aldaketak eta berrikuspenez, ingurumena babesteko maila handi bat bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

«Buruntza, 4.642. zk.» emakida handitzeko ustiapen-proiektua abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskineko 2.c) epigrafean jasotzen da; beraz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura bete behar da.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak, organo substantiboa den aldetik, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egiteko beharrezkoa dena xedatu du. Horretarako, ingurumen-inpaktuaren azterketa bat gehitu du espedientean, eta kontsulta publikoak egin ditu; gainera, eraginpeko administrazio publikoek eta interesdunek prozeduran parte hartu dute.

Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertuta, eta ikusirik ingurumen-inpaktuaren azterketa nahikoa dela eta indarreko araudian ezarritako alderdietara egokitzen dela, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau eman du; bertan, proiektuaren proposamenean ingurumen-arloko alderdiak sartzearen alde egin da, eta proiektua aplikatzearen ondorio adierazgarrien aipamena jasotzen da, baita sartu beharreko azken oharrak ere, soilik ingurumen-arlokoak. Zuzendaritza hori eskumeneko organoa da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Sociedad Financiera y Minera merkataritza-sozietateak Andoainen eta Lasarte-Orian sustatutako «Buruntza, 4.642. zk.» emakidaren handitzeari dagokion ustiapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik.

«Buruntza, 4.642 zk.» meatze-ustiapenaren emakida (aurrerantzean, Buruntza harrobia) Andoaingo eta Lasarte-Oriako udal-mugarteetan dago, baina meatze-ustiapena udal-mugarte horietako lehenengoan bakarrik egiten da.

Buruntza harrobian ustiatzen den materiala kareharria da, eta Sociedad Financiera y Minera SA enpresak Añorgan duen fabrian zementua ekoizteko lehengai gisa erabiltzen da.

Ustiategi horretatik gertu, «Buruntza handitzea, 4729 zk.» emakida dago. Sociedad Financiera y Minera SAK sustatutako ustiapen-proiektu bat du, eta ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 30eko Ebazpenaren bidez emana.

Bi ustiategiaren jarduera ez litzateke inoiz aldi berean egingo; izan ere, aurkeztutako dokumentazioan ezarritakoaren arabera, «Buruntza handitzea, 4729 zk.» izeneko proiektuaren ustiapena «Buruntza, 4642 zk.» emakidaren ustiapen-baliabide baimenduak agortu ondoren egingo litzateke.

Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren mende dagoen ustiapen-proiektua harrobiko ekialdeko ustiapen-azalera 2,87 ha handitzean datza, harrobia modu arrazionalagoan ustiatzeko, horrela kalitate handiagoko kareharriaren erreserba kopuru handiagoa ustiatu ahal izango baita.

Horretarako, harrobiaren goiko bankuetara iristeko pista berri bat gaitu behar da, 330eko kotaraino; beraz, proiektuaren handitzeak 3,85 ha-ko azalerari eragiten dio. Pista 6,75 m zabal izango da, gutxienez; kurbetan 1,25 m-ko gainzabalera izango du, eta, horrez gain, segurtasun-bazterbidea eta areka ezpondaren oinean. Pistak bazterbide bat dauka ibilgailuak gurutzatzeko, 23,3 x 40,7 metrokoa.

Erauzketa-jarduerarako ustiapen-azalera osoa 37,53 ha-koa izango da, proposatutako ustiapen-handitzearen azalera eta sarbide-pista berriak hartzen duena kontuan hartuta.

Ustiategiaren goiko kota eta kota baxuena (bertan kokatzen da harrobiko plaza) ez dira aldatu baimendutako proiektutik hona.

Aurrerapena beherantz egiten da, eta aldi berean lehengorutzen da, goiko bankuak utzi ahala, azken egoerara iristean. Aurrealdeetako materiala aire zabalean erauziko da, zulaketa eta leherketa bidez. Zulaketa-prozesuan, hautsa hartzeko ekipo bat duen zulamakina bat erabiltzen da. Zulaketa-detritua ekoizpen-prozesuan txertatzen da.

Lortutako materiala egungo instalazioan birrindu eta bahetzen da, eta, ondoren, Añorgako fabrikara eramaten da, zementua fabrikatzeko lehengai gisa erabiltzeko. Erauzitako material guztia egokia da zementua ekoizteko, eta, beraz, ez da beharrezkoa hondakindegirik izatea.

Birrindutako materialak Añorgako zementu-fabrikara eramaten dituzten kamioiak N-I errepidearen ondoko bazterbide batean kargatzen dira, eta, beraz, kamioiek ez dute ustiapen-eremura sartu behar. Birrindutako materiala guztiz karenatutako biltegi batean gordetzen da, bidali arte.

Harrobia handitzeko proiektuak egungo ustiapen-erritmoari eutsiko dio: kalkuluen arabera, urtean 500.000 tona kareharri (208.333 m³/urte) ustiatuko dira, eta horrek esan nahi du ustiategiaren bizitza 2053. urtera arte luzatuko dela. Ustiategiak baimenduta duen indarraldia 2039an amaituko dela kontuan hartuta, enpresak, legez ezarritako unean, dagokion luzapena eskatuko du, meatzaritzako legeriak ezarritakoaren arabera.

Proiektu berriak ez du inolako aldaketarik eragingo gaur egun egiten diren leherketen kopuruan eta maiztasunean, ekoizpena berbera baita oraindik; halaber, ez dakar aldaketarik egungo tratamendu-instalazioetan.

Bigarrena.– Baldintza hauek jartzea proiektua gauzatzeko (lotesleak dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan xedatzen denaren arabera):

A) Proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioaren arabera gauzatu da proiektua, eta, nolahi ere, ebazpen honetan zehaztutakoaren arabera.

Proiektu honen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko prozedurak, proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaz gain, kontuan izan du espedientean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozeduraren aldi orotan erantsitako txostenen edukia.

B) Proiektua aldatzen edo zabaltzen bada, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eta II.E eranskinetan jasotako aldaketa-araubidea aplikatu da.

Proiektuan egingo diren aldaketa puntualak arrazoitu egin beharko dira ingurumenaren ikuspegitik, aurreko apartatuan adierazitako garrantzirik ez badute ere. Babes- eta zuzenketa-neurrietan, ingurumen-zaintzako programan, aurrekontuan eta baldintzen agirian jasoko dira proiektuari egiten zaizkion aldaketak.

C) Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren alderdi garrantzitsuak.

C.1.– Buruntza harrobiaren eragin-eremuaren ingurumen-balorazioa.

«Buruntza 4.642 zk.» ustiatzeko zuzeneko emakida Oria ibaiaren eskuineko ertzean dago, N-I errepide nazionalaren ekialdean eta Andoaindik 1.500 metro ipar-mendebaldera.

Azterketa-eremua ez dago babestutako ezin espazioren barruan. Hurbilen dauden tokiak honako hauek dira: ES2120013 Leitzarain Ibaia KBEa (2.500 metrora dago, gutxi gorabehera, hego-ekialdean), Atxulondo-Abalotz interes naturalistikoko gunea (2.500 metrora, ipar-mendebaldean) eta Aralar-Aiako Harria korridore ekologikoa moteltzeko eremua (2.800 metrora, gutxi gorabehera).

Proiektuareneragin-eremua «Andoain Oiarzun» ES017MSBT17.002 lurpekour-masarengainean dago, eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan ezarritako Eremu Babestuen Erregistroan jasota dago, hornidurarako lurpekour-bilketaren eremuen kategorian (kodea: ES017ZCCM170012000227).

Ustiatutako materialak kareharriak dira, akuifero karstikoak zentzu hertsian; birkarga prezipitazioek eragindako infiltraziotik dator, eta arro txiki batetik. Akuiferoek kutsatzeko arrisku altua eta oso altua dute. Zirkulazioa batez ere Oria ibairantz egiten da. Akuiferoak bi irteera-puntu garrantzitsu ditu: Bycia eta Huertas iturburuak (30 l/s eta 15 l/s-ko emariak, hurrenez hurren).

Harrobiaren inguruan dauden fauna-espezieen artean, honako hauek nabarmentzen dira: belatz handia (*Falco peregrinus*), harkaitz-zozo urdina (*Monticola solitarius*), belea (*Corvus corax*) eta belatz gorria (*Falco tinnunculus*). Harrobia belardi-eremu gisa erabiltzen dute espezie horiek, eta ez da aurkitu habiarik meatze-jardueraren handitze-eremuan.

Era berean, sustatzaileak egindako faunari buruzko azterketen arabera, ustiategiaren inguruan lau kiroptero espezie erregistratu dira: saguzar arrunta (*Pipistrellus pipistrellus*), gau-saguzar handia (*Nyctalus lasiopterus*), kuhl pipistrela (*Pipistrellus kuhlii*) eta ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*). Harrobiaren handitze-eremuan saguzar arrunta baino ez da hauteman. Erregistro positibo gehien dituen eremua harrobiaren beheko aldea da, instalazioen eta plataforma nagusien ondoan dagoena. Bertan erregistratu dira lehen aipatutako kiroptero espezie guztiak.

«Andoaingo eta Lasarte-Oriako "Buruntza 4.642 zk." harrobia handitzeko ustiapen-proiektua aldatzeko dokumentazio osagarria: landaredia, fauna, paisaia eta arkeologia» azterketaren arabera (2021eko azaroa), honako landaredi-unitate hauek daude erauzketa-jardueraren zabaltze-eremuan:

- Landaredi erruderala.
- Hostozabalen baso gaztea.
- Otabera sastraka.
- *Pinus radiata* plantazioa.

Otabera sastrakak du interes handiena, inguruko ohiko otadiek baino landaredi dibertsifikatuagoa baitu. Sastraka hori bat dator Batasunaren intereseko 4090 habitatarekin (Txilardi oromediterranar endemikoak otaberarekin), eta, zehazkiago, 4090.1 azpimotarekin (Otabera sastrakak).

Harrobiaren ondoan Burdin Aroko herrixka gotortua dago, kultura-ondasun deklaratu, monumentu kategoriarekin. Herrixka, dena den, harrobia handitzeko proiektuaren zuzeneko eragin-eremutik kanpo geratzen da.

C.2.– Aurreikus daitezkeen ingurumen-ondorioak.

Aztertutako dokumentazioaren eta kontsultatutako administrazio publikoek bidalitako txostenen arabera, honako hauek dira ustiategia handitzearen ondoriozko eragin posible nagusiak: lurpeko urei kalte egitea, landare-estalkia kentzea eta paisaiari kalte egitea.

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren arabera, harrobia handitzeak ez du eraginik izango azpiko akuifero endokarstikoan, ez deskarga-emarietan, ez bolumenean, kargan eraginik ez duelako. Akuiferoko uren kalitatean ere ez du eraginik izango, ustekabeko isurketa posible batek ez baitu garrantzirik akuiferoaren azpiunitate hidrogeologikoak dakarren bolumenaren aldean.

Ustiapena handitzearen ondorioz, Batasunaren intereseko 4090 habitataren (Txilardi oromediterranar endemikoak otaberarekin) 2,30 ha-ko azalera kenduko da, zuhaixken eta hostozabalen baso gazteen 0,68 ha-ko azalera, eta birpopulatze-pinudiaren 0,37 ha-ko azalera.

Aztertutako eremuko landareen artean, 4090 habitata da botanikaren ikuspegitik interes handiena duena. Kareharrizko azaleratzeetan dezente agertzen da, bai tokiko mailan, bai EAEn, eta 26.759,35 ha-ko azalera hartzen du, Eusko Jaurlaritzaren 1:10.000 eskalako kartografia ofizialaren arabera. Balio hori erreferentziatzat hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak ondorioztatzen du proiektuak eragindako azalera (2,30 ha) EAeko azalera osoaren % 0,008 dela; proportzio oso txikia da, eta ez du arriskuan jartzen habitat mota horren kontserbazioa.

Faunaren gaineko eragin posibleei dagokienez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren arabera, ez da eraginik izango hegazti harraparien edo beste espezie harkaiztar batzuen ugaltze-tokietan, ez eta ustiategiaren eremuan detektatutako kiroptero espezieen ugaltze-tokietan ere. Faunaren gaineko eragin nagusia habitata kentzearen ondorio da; zehazki, sastrakei eta hostozabalen zuhaitzei lotutako intereseko espezie ugaltzaileei eragingo die.

Faunari ahalik eta kalte gutxien eragiteko, ingurumen-inpaktuaren azterketak proposatzen du sastrakak kentzeko lanak azarotik otsailera bitartean egitea, habiagintza- eta ugaltze-garaiak saihesteko eta arrautza multzoak eta umealdiak suntsitzeko arriskua murrizteko. Belar-sastrakak kentzeko orduan, ustiategiaren mugakide diren eta gutxien aldatzen diren eremuetara bideratuko da fauna; halaber, desnibel handiak edo oso agerikoak dituzten inguruak saihestuko dira, lekualdatutako espezieen gaineko harrapakaritzaren areagotu baitezakete. Eragindako azalera eta ingurumen-inpaktuaren azterketan sartutako zuzenketa-neurriak kontuan hartuta, faunaren gaineko inpaktu hori ez da adierazgarritzat hartzen.

2022ko ingurumen-inpaktuaren azterketa bateratuak 6. eranskinean jasotzen du dokumentu hau: «"Buruntza, 4.642 zk." zuzeneko ustiapen-emakidaren handitzeari buruzko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko eskaeraren erantzuna, 2021eko azarokoa». Dokumentu horretan xehetasun-azterketa bat jasotzen da, harrobiko ustiapen-azalera handitzeko proiektuaren irisgarritasunari eta pista berria gauzatzeari buruzkoa; geoprozesatze-tresnen bidez lursailen eredu digitaletatik abiatuta egin da. Azterketa horrek ondorioztatzen duenez, handitzearen kasuan ez ezik, goiko bankuetara sartzeko pista irekitzearen kasuan ere, behatzaile potentzialak gaur egun ukituta dauden berberak dira, eta, beraz, proiektuaren ez da gehiegi areagotuko lehendik duen hauskortasuna.

Kontuan hartuta inguru horretako paisaiaren ikusizko egungo kalitate eskasa, lehendik duen hauskortasuna bere horretan mantenduko dela, kota altuetatik ustiatzeko metodoa erabiliko dela eta lehengoratze-proiektuaren neurriak aplikatuko direla, proiektuak paisaian duen eragin orokorra ez da oso adierazgarria.

2. eta 3. kurben artean dagoen sarbide-pistaren zatia da ikuspen handiena duena; beraz, tarte horietan lurrezko kabailoiak eta zuhaixka-pantailak jarriko dira, pistaren intrusio bisuala minimizatzeke.

Proiektuak arriskuekiko duen urrakortasunari dagokionez, harrobian handituko den eremua ez dago sartuta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan, eta ez dago uholde-arriskuko eremuetan ere. Harrobitik gertuko eremuan ere ez dago substantzia arriskutsurik erabiltzen duen enpresarik, ezta salgai arriskutsuekiko esposizio-arrisku esanguratsurik ekar lezakeen salgaien garraiorako biderik ere. Proiektuaren ezauzgarriak kontuan izanik, ustiategiaren arrisku-faktore nagusia arazo geologikoak dira (blokeen ezegonkortasuna, haitzak amiltzeko arriskua, etab.). Arazo horiek baztertzeko, ustiapen-proiektuari proiektu geoteknikoa atxiki zaio, diseinu berriaren egonkortasuna bermatzen duena, bai ezponden egonkortasunaren kalkuluan, bai segurtasun-bermen ahalmenean.

Handitzearen ondorioz, urteko ekoizpena ez da izango planifikatutakoa baino handiagoa, eta ez du aldaketarik eragingo egungo makinetan zein tratamendu-instalazioetan. Horrez gain, ez du aldaketa nabarmenik eragingo uretara egindako isurketetan, ur-kontsumoan, hondakinen sorreran eta zaraten igorpenean. Beraz, makinak erabiltzearen eta minerala fabrikara garraiatzearen eraginez sortutako ingurumen-ondorioak, kuantitatiboki, lehendik baimendutako proiektuak sortutakoekin berdinak izango dira. Ustiapen-azalera handituta, baina, ondorio horiek denboran luzatuko dira, baimendutako proiektuari dagokionez.

Atmosferara egiten diren emisioak minimizatzeke, gaur egungo instalazioak (elikadura-uhala, inpaktu-birrintzailea eta itzulerako zintetako bat) eraikin baten barruan daude. Irteerako zinten sistema karentatuta dago kanpoko zatian. Era berean, instalazioak mahuka-iragazki bat du, hautsa hartzeko bi hargunerekin. Lehenengo hargunea birringailutik uhal garraiatzaile horizontalera deskargatzen den eremuan dago; bigarren hargunea uhal garraiatzaile horizontalaren eremuan dago, uhal garraiatzaile inklinaturantz. Hartutako hautsa instalazioan berrerabiltzen da.

Ustiategia handitzeko proiektuak lehengoratze-plan bat barne hartzen du; plan hori apurka-apurka gauzatzea aurreikusten da proiektuak aurrera egin ahala. Plan horrek eraginpeko azalera osoa hartzen du (egungo ustiategiaren eraginpean dagoen azalera gehi proiektatutako handitzearen eraginpean dagoena).

D) Babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoen aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak organo eskudunaren bidez Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan xedatutakoaren arabera.

Neurri horiek eta kontrolerako izendatutako langileek ingurumen-inpaktuaren azterketan ezarritako kalitate-helburuak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen honetan ezarritakoak bermatu beharko dituzte.

Neurri horiek guztiak ustiapen-proiektuan sartu beharko dira, eta neurri horiek beteko direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute.

Hurrengo apartatuetan adierazten diren neurriak gehitu beharko dira.

D.1.– Proiektuaren eremua.

a) Jardueraren gehieneko eragin-eremua bat etorriko da Buruntza harrobia ustiatzeko proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitako espazio-mugekin.

Ezin izango zaie inola ere kalterik egin ustiapen-proiektuaren mugetatik kanpo kokatutako eremuei, ez zuloak ireki behar direlako, ez pista berriak edo sarbideak egin behar direlako, ez erauzketaren osagarri den beste edozein jarduera egin behar delako.

b) Lursailean muga horien erreferentzia bat izateko, eta erauzketa-lanetan muga horiek ez gainditzeko, ustiategia handitzeko eremuan lanak hasi aurretik, proiektuaren gehieneko eragin-eremua mugatu beharko da, «in situ» mugarririk jarrita. Mugarriztatze hori xehetasunezko plano topografikoan jasoko da. Plano hori (ustiapen-azalera handitzeak eta pista berriak eragindako azalera barne) organo substantiboari bidali beharko zaio, eta organo horrek ingurumen-organuari helaraziko dio, harrobia handitzeko lanak hasi aurretik.

D.2.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zenbait flora-espezieren babesa finkatzen duen urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeaz gain, neurri hauek ere aplikatuko dira:

a) Handitu nahi den eremuan sastrakak kendu aurretik, faunari zuzeneko kalterik ez eragite aldera, faunan aditua den teknikari kualifikatu batek lursailaren ikusizko ikuskapena egingo du. Horrela, intereseko hegaztien habiak, arrautzak edo txitak, gordelekuak eta abar egon daitezkeen aztertuko du. Faunarentzat interesgarriak diren lekuak atzemanez gero, hartu beharreko neurriak hartuko dira, faunari kalte ez egiteko. Belar-sastrakak kentzeko orduan, ustiategiaren mugakide diren eta gutxien aldatzen diren eremuetara bideratu behar da fauna.

b) Ustiapen-ezpondek akabera irregularra izatea bultzatuko da, hormetako pitzadurak eta zuloak dauden horretan utzita, eta meatze-segurtasunarekin bateragarriak diren baldintzetan, kiropteroek gordeleku gisa erabil ditzaten.

c) Erauzte-jarduerak zuzenean eragingo ez dien Batasunaren intereseko habitatei eta bertako zuhaitz-landaretzako eremuei dagokienez, ahalik eta prebentzio-neurri zorrotzenak hartu beharko dira proiekturako behar-beharrezkoa den baino azalera handiagoari ez eragiteko. Horretarako, aipatutako eremuak zehatz-mehatz mugatu eta balizatu beharko dira, eta behar diren neurriak hartuko dira belar-sastrakak kentzea edo moztea behar-beharrezkoa ez den landarediari kalterik ez egiteko.

d) Adierazitako eremutik kanpo istripuzko eraginik gertatuz gero, zuzenketa- eta lehengoratzeneurri egokiak ezarri, eta zaintza-programan jasoko dira.

e) Ingurumen-inpaktuaren azterketan aurreikusitakoaren arabera, kota handiengan dauden harrobiko bankuen goiko herenean, saguzarrentzako habia-kutxak instalatuko dira.

D.3.– Uraren eta ur-baliabideen kalitatea babesteko neurriak.

Esar daitezkeen baimen-prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako babes- eta zuzenketa-neurri hauek ere hartu beharko dira:

a) Proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko espedientean jasotako dokumentazioan xedatutakoaren arabera, drainatze-sare bat egingo da, ustiapen-zuloko jariatze-ur guztiak jasoko direla bermatzeko, harrobia handitzeko eremuan sortutakoak barne. Sarea kanpoko azpiarroen puntako emariak biltzeko moduan egingo da, prezipitazio handieneko egoeretan urak husteko ahalmena bermatuta egon dadin.

b) Aipatutako drainatze-sarearen azken elementua dekantazio-putzu bat izango da. Egoki diren kalkulu hidraulikoak egingo dira solidoak ondo atxikiko direla bermatzeko, eta, nolahi ere, isurketa leku jakin batean egingo dela eta uraren parametro fisiko eta kimikoei buruz indarrean dauden arauetan xedatutakoa betez egingo dela bermatzeko. Uraren Euskal Agentziak espediente honi buruz egindako txostenean xedatutakoa betez, dekantazio-putzua iragazgaitu egin beharko da, harrobiko plazan urak iragaz ez daitezzen. Arro-erakundeak zehazten duenarekin bat etorritik gauzatu beharko dira ur horiek kudeatzeko sistema garatu eta exekutatzeko neurriak.

Dekantazio-putzuaren mantentze-lanak eta aldizkako garbiketa egingo dira, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko; metatutako lohiak aldizka hustuko dira, tratamendu-sistemaren funtzionamenduaren errendimendu optimoa bermatzeko. Lohi horiek hondakinen kudeaketari dagozkion neurrien apartatuan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

c) Funtzionamendu-egoera onean mantenduko dira beti jariatze-uren sareak; hala, ez da inolako oztoporik ezarriko, ez material metaketarik egingo edo kutsakorra izan daitekeen elementurik ipiniko euri-urak joaten diren gunen eta bideetan, eta ahalegin guztia egingo da lurrazaleko eta lurpeko uren zirkulazio askea ez oztopatzeko. Urtero eta agorraldiarekin bat etorritik, sare horiek berrikusiko dira, eta, hala badagokio, haien konponketa orokorra egingo da.

d) Obrako makina-parketarako erabiliko den azalera eta berorren mantentze-lanetarako eremua isolatu egingo dira drainatze naturaleko saretik. Zola iragazgaitza eta efluentek biltzeko sistemak izango dituzte, lurzorua eta ura, olio eta erregaien eraginaren ondorioz, kutsa ez daitezzen. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ezin izango dira horretarako adierazitako eremuetatik kanpo egin.

e) Ustiatzean, hidrokarburoak xurgatzeko material espezifikoak (biribilki erakoa edo gai pikortatua, etab.) izango da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala erabili ahal izateko.

f) Ustiatzeak eremu horretan egon daitezkeen akuiferoei zuzenean kalterik ez egiteko, frontetan aurreratze-zulaketetan harkaitz-substratuan ubiderik dagoen zainduko da. Era berean, maila bakoitza ireki ondoren, mendigune harritsuko etenetan ura edo hezetasuna dagoen kontrolatuko da, bai eta ubide edo karstifikazio-prozesu garrantzitsurik dagoen ere. Kasu horretan, azterketa zehatzagoa egitea edo prebentzio-neurri zehatzak hartzea komeniko da.

g) Ezin izango da lurrazaleko edo lurrazpiko urik bildu, horretarako administrazio-emakida izan ezean.

h) Hondakin-urak putzu septiko batean biltzen dira; tratamendu-sistemaren errendimendu optimoa bermatzeko, putzu horiek aldizka garbitu beharko dira, une oro behar bezainbateko edukiera mantentzen dezaten.

i) Harrobia handitzeak indarreko isurketa-baimenean ezarritako baldintzak aldatzea badakar, nahitaez berrikusi beharko da.

D.4.– Atmosferako kutsaduraren prebentziorako neurriak.

Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren bitartez, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen da, eta hura aplikatzeko oinarritzko xedapenak ezartzen dira. Bada, dekretu horren eranskinean jasotzen da jarduera, eta azaroaren 15eko 34/2007 Legean eta abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuan ezarritako obligazioei eta baimen-erregimenari egokitu beharko zaie (34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa; eta 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren instalazioak arautzen dituena).

Ustiategiak atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiteko baimena dauka, ebazpen honi esker: Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2015eko otsailaren 11ko Ebazpena, baimena ematen duena atmosfera kutsa lezaketen jarduerak egiteko, eta aldatu egiten duena Andoaingo udal-mugaratean (Gipuzkoa) Sociedad Financiera y Minera SAK sustatutako Buruntza harrobiaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Aurrekoaz gain, babes- eta zuzenketa-neurri hauek hartuko dira:

a) Jarduera gauzatzen denean, ez dira inoiz gaitzuko atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretu horretan partikulei buruz ezartzen diren muga-balioak.

b) Zulaketako eragiketetan, lantalde guztiek hauts-kaptadoreak izan beharko dituzte.

c) Erauzketa-eremuak eta kamioiak ibiltzen diren eremuak ureztatzeko bitartekoak izango dira, hautsaren barreadura ahalik eta gehien murrizteko, batik bat garai txarretan. Mantentze-lanak eta garbiketa egin beharko dira aldiro, bai instalazioen eremuan bai harrobiko sarbideetan eta pistetan, ahalik eta hauts gutxien barreiatzeko.

d) Hautsa minimizatzeko dauden sistema guztiak aldiro berrikusiko dira, eta egoera onean mantenduko, bai birrintze-instalazioetakoak (uhal garraiatzaileen estalkiak, babes-estalkiak, mahuka-iragazkiak, materialen biltegiak, etab.), bai zulaketa-ekipoenak (hauts-kaptadoreak) eta bai pistak ureztatzekoak (aspertsore-sistema, zisternak).

e) Ustiategian hautsa murrizteko instalatutako sistemei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, jardunbide egokien kodea ezarri beharko da, eta harrobiko langileei sistema nola erabili erakutsi beharko zaie. Jardueraren eta klimatologiaren arabera beharrezkoak diren puntuetan ureztatze-sistema aktibatzea azpimarratuko da.

f) Harrobiaren eta zementu-fabrikaren artean materialak garraiatzerakoan, hezetasun-baldintza egokienak mantenduko dira, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lohiak eta partikulak barreia ez daitezten.

D.5.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

a) Zarata sortzen den lekuan jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira ustiapen-fasean zehar; batez ere, zamalanetan, garraio-lanetan eta erabiltzen den makineriaren mantentze-lan orokorrak egiterakoan.

b) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez, erabilitako makineria aire zabalean erabiltzen diren makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legedian ezarritako xedapenetara egokitu beharko da, eta, bereziki, haientzat aplikagarria denean, aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurumeneari eragiten dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan xedatutakora ere egokitu beharko dira.

c) Zarata-foku berririk balego, foku horiek jarduerari aplikatu daitezkeen gehieneko balioak bete beharko dituzte, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

d) Kalitate akustikoaren helburuak bat etorriko dira aipatu urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezartzen denarekin.

Leherketa-proiektuak UNE 22-381-93 arauaren arabera egin beharko dira; hortaz, proiektuaren eragin-esparruan dauden eraikinetan eragindako bibrazioek ezingo dituzte arauan ezarritako mugak gainditu.

e) Aireko uhinaren presioari dagokionez, ezingo ditu 128 dB(L) gainditu –muturreko balioa–, eraikuntzen agerieneko fatxadan.

f) Sustatzaileak harrobitik hurbil bizi direnei informazioa banan-banan emateko sistemarekin jarraitu beharko du. Horrela, auzokoei zehatz jakingo dute zer-nolako neurriak hartu behar dituzten leherketek eragiten dituzten dardaren eta aire-uhinaren ondorioak gutxitu eta kontrolatzeko.

D.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Proiektuaren gauzate- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinak Ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta arautegi zehatzetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Meategiko hondakinak erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta lehengoratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

c) Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

d) Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: behar bezala frogatzen bada horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela.

e) Berriaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

f) Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak eta hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak xedatutakoaren arabera ere kudeatuko dira hondakindegira bidali beharreko hondakinak.

g) Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

h) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegi-ratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezzen.

i) Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi baterako pila-tzeko; besteak beste, olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen gunetatik bereizita.

j) Aipatutako ontziak edo bilgarriak modu argi, irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, baita indarreko araudiaren arabera ere.

k) Apirilaren 8ko 7/2022 legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia.

l) Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etike-tatutako depositu estankoetan; zola iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.

m) Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudea-tzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemok, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta produktuak biltegi-ratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatu gabeak sortuko.

D.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-espeditentean jasotako dokumentazioaren arabera, 2010eko otsailaren 2ko 38/2010 Dekretuak monumentu gisa kalifikatutako Buruntzako Burdin Aroko herrixka gotortuari balioa emateko programa bat prestatuko da.

Ingurumen-inpaktuaren azterketan definitutako konpentsazio-neurriak hartuko dira, balioa emateko eta jendeak gozatzeko. Neurri horiek honako hauek dira: herrixka gotortuaren babesa eta identifikazioa mugatzea, aurkitutako elementu arkeologikoak arkeologikoki ikustea, pistatik eta/edo egungo sarbidetik herrixkarako sarbidea hobetzea eta seinaleztapen- eta ilustrazio-jarduketak egitea.

D.8.– Ustiapenaren eraginpeko paisaia eta eremua lehengoratzeko zuzenketa-neurriak.

Erauzketa-lanek aldatutako naturaguneak lehengoratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan eta Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jardue-rak eragindako tokiak babestu eta lehengoratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan xedatutakoa galarazi gabe, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztu-tako dokumentazioan jasotzen den proposamenaren arabera egingo dira lehengoratze-lanak, eta urtero koordinatuko dira Lanen Urteko Planaren bidez. Gainera, babes- eta zuzenketa-neurri hauek hartuko dira:

a) Landare-berritzeak, bertako espezieak sartuta, landaretza-masa trinkoak eta jarraituak ezar-tzeko aukera eman behar du; habitat naturalak sortu behar dira, eta, ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotu.

b) Erauzketa-lanek eragindako eremu guztiak lehengoratuko dira, baita lehengoratze-planean agertzen ez zirenak baina, ustiapenaren ondorioz, azkenean eraginak jasan dituztenak ere.

c) Sustatzaileak prestatutako dokumentazioaren arabera, landare-pantaila bat jarriko da pista berriaren ertzetan proiektatutako kabailoietan. Honako espezie-unitate hauek osatuko dute landare-pantaila: *Laurus nobilis*, *Rhamnus alaternus*, *Arbutus unedo*, *Ilex aquifolium* eta *Phillyrea latifolia*.

d) Besteak beste, *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii* espezie inbaditzaileak desagerrarazteko lanak egingo dira. Lehengoratze-lanetan, espezie horiek ez ugaltzeko ekintzak egingo dira, eta, bereziki, landare-estalkia lehengoratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatuko da; ahal dela, landaredia soiltzeko teknika mekanikoak saihestuko dira, eta ez da erabiliko horrelako espezieekin kutsatuta egon litekeen lurra.

e) Lehengoratze-lanetan kanpoko materialak erabiltzeari dagokionez, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinaren barruan, dagokion taulako «Beste erabilera batzuk» zutabearen giza osasunaren babeserako ezarritako EBA-B ebaluazioko balio adierazleak baino kutsatzaile-eduki txikiagoak dituzten obretako indusketak-lanetatik datozen materialak soilik baimenduko dira.

f) Gainera, kanpotik datozen induskatutako material naturalak erabili ahal izateko, hondeatutako material naturalak betelanean eta jatorrizko obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorre buruzko urriaren 10eko APM/1007/2017 Aginduan adierazten dena aplikatuko da. Arau orokor horiek betetzen direnean, baimenik gabe geratuko dira hondakin horien balorizazioa aurrera daramaten pertsona fisikoak edo juridikoak, Ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 34. artikuluko aurreikuspenak aplikatzen diren neurrian.

g) Ustiategiaren bizitza erabilgarri osoan zehar, hainbat mantentze-lan egin beharko dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak birlandatu, horretarako beharra ikusten denean. Ez da pestizidarik, herbizidarik edo antzekorik erabiliko harrobiko eta inguruko landaredia tratatzeko.

D.9.– Jarduera etetea.

Ustiatagia uzten den garaian aplikatu daitezkeen berriarazko araudia betetzeaz gain, onura-instalazioak desmuntatzeko lanetan babes- eta zuzenketa-neurri batzuk aplikatuz egingo dira, ebazpen honetan ustiapen-faserako ezarri direnen antzeko neurriak, hain zuzen, batez ere landaretza, uren kalitatea eta hondakinak eta lurzoruak babesteari buruzkoak.

Meatze-ustiategiaren eremuko lurzati bat lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan dago (lurzatiaren kodea: 20009-00096). Sustatzaileak lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasi beharko du, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31. artikuluan xedatu bezala, eta kontuan hartu beharko ditu abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) 23. artikuluan ezarritako zehaztapenak.

D.10.– Ingurumen-aholkularitza.

Ustiapena amaitu arte eta bermealdiak irauten duen bitartean, ingurumen gaietan eta babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrietan aholkularitza kualifikatua izan beharko da.

E) Ingurumen-zaintzako programa.

Ingurumen-zaintzako programa sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera gauzatu beharko da, bai eta, hala bada-gokio, isurtzeko, ura aprobetxatzeko edo atmosfera kutsa dezakeen jarduera egiteko baimenetan ezarritakoaren arabera ere.

Kontrol hauek egingo dira:

E.1.– Obraren okupazio-mugak kontrolatzea.

Egiaztatuko da egindako okupazioa proiektuan aurreikusitakoarekin bat datorrela, eta ez zaiola eragin aurreikusitakoa baino azalera handiagoari, ebazpen honen D.1 apartatuan ezarritakoaren arabera.

E.2.– Ur-baliabideak kontrolatzea.

a) Ingurumen-inpaktuaren azterketan xedatutakoaren arabera, aldizka begiratuko da ea Bycia iturburuak ongi funtzionatzen duen eta behar bezala mantentzen den.

b) Jarduerak lurpeko uretan izan dezakeen eragina kontrolatzeko, kontrol-sare piezometriko bat jarriko da, behar bezain adierazgarria. Sareko kontrol-puntuetako bat harrobiko plazan jarri beharko da. Ustiapen-aldi osoan sare horren eraginkortasuna bermatu beharko da, eta istripuz edo ustiategiaren aurrerapenak berak honda ditzakeen piezometroak lehengoratu egin beharko dira.

Sustatzaileak justifikatu beharko du ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako piezometroen kopurua eta kokapena ustiategiaren eremuaren baldintza hidrologikoen adierazgarri direla, mailen eta balizko joeren bilakaera egiaztatu ahal izateko, informazio historikoa aztertuta. Hala badagokio, informazio hidraulikorik ez dagoen eremuetan beste kontrol-piezometro batzuk egitea proposatuko da.

c) Akuiferoak eraginik ez duela jasango bermatzeko, laginak hartuko dira hiru hilean behin, eta parametro hauek aztertuko dira: pH-a, oxigeno-eskari kimikoa, guztizko solido disolbatuak, eroankortasun elektrikoa, solido esekiak, olioak, koipeak eta hidrokarburoak (PAH eta TPH motakoak). Azterketa horiek guztiak egitean, erreferentziatza hartuko dira giza kontsumorako uraren kalitatearen irizpide sanitarioak ezartzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan ezarritako mugak.

Lurpeko uretan kutsadura-gertakari puntual bat jazotzen bada, kontuan hartu beharko dira erremediatzeko xede-balioak. Xede-balio horiek Uraren Euskal Agentziak argitaratutako «EAEko lurpeko uretako kutsadura-gertakari puntualetan aplikatu beharreko irizpide eta balio generikoen definizioa» dokumentuan ezarrita daude.

Gutxienez urtean bitan (ur handietan eta ur txikietan), inbentariatutako ur-puntuen karakterizazio hidrokimikoa osatuko da; hala, osagai kutsatzaileak ez ezik, ioi nagusiak eta bigarren mailakoak ere aztertuko dira, eta, horrela, lurpeko uren izaera ebaluatuko da.

Eremuaren bilakaera hidrokimikoaren azterketa egingo da; horretarako, aztertutako elementu bakoitzaren egungo eta iraganeko kontzentrazioen konparazio ebolutiboa egingo da, inguruan izan daitezkeen joeren edo gerta daitezkeen desbideratzeen berri izateko.

d) Jarraipen-txostenean, urtean zehar ateratako argazkiak sartuko dira, baldin eta harmailak irekitzean hodiak edo ura ikusten badira. Argazki horiek harri-substratuan ur-hodiak detektatzeko etengabeko zaintza-jardueren esparruan hartuko dira, bai eta harrobian harmaila bat irekitzen den bakoitzean, etenetan eta mendigune harritsueta urik dagoen ikusteko egiten den kontrolaren esparruan ere.

E.3.– Zarata, aire-uhinaren dardara eta presioa kontrolatzea.

a) Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera, bibrazioen kontrolak egingo dira ustiatzean egiten diren leherketa guztietan. Sustatzaileak aurkeztutako ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako ditu kontrolatu beharreko puntuak.

b) Bibrazioak kontrolatzeko, UNE 22-381-93 arauan xedatutakoa hartuko da kontuan. Bibrazio-abiaduraren maila seguruak arau horretan daude ezarrita egitura mota bakoitzerako. Bibrazioen kontrol bakoitzean jaso beharko dira UNE 22-381-93 arauko 7.2 apartatuko («Bibrazioen kontrolerako neurketa») datuak. Halaber, leherketa-erregistro bakoitzean, desarra- eta erregistro-puntuak eta bibrazio-abiaduraren balio handiena jasoko dira.

c) Kalterik atzemanaz gero, leherketek sortutako aire-uhinaren presioaren neurketak egingo dira leherketok gehien jasaten dituzten eraikin habitatueta.

d) Zarataren kontrola ingurumen-inpaktuaren azterketan adierazitako puntuetan egingo da. Neurketak egunez egingo dira, harrobian jarduera handiena dagoen uneetan.

e) Neurtzeko metodoak eta erreferentzia-balioak Zarata buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoari atxiki beharko zaizkie, baita Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan xedatutakoari ere.

E.4.– Leheneratzearen arrakasta kontrolatzea.

Ustiapena amaitu ondoko hiru urteetan, aldizkako jarraipena egingo zaio proiektuak eragindako eremuen lehengoratzek izan duen arrakasta-mailari.

E.5.– Gorabeherak erregistratzea.

Ustiapenean zehar izandako gorabeherak erregistratu beharko dira, eta babes- eta zuzenketa-neurriak zenbateraino bete diren jaso. Erregistro hori eskuragarri egon beharko da, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ikuska dezan. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu behar dira aipatutako aldaketak.

E.6.– Ingurumen-zaintzako programaren dokumentu bategina.

Sustatzaileak ingurumen-zaintzako programaren agiri bategina egin beharko du, eta honako hauek jasoko ditu bertan: ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako betebeharrak guztiak, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2015eko otsailaren 11ko Ebazpenean ezarritakoak (Ebazpena, 2015eko otsailaren 11koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, baimena ematen duena atmosfera kutsa lezaketan jarduerak egiteko, eta aldatu egiten duena Andoaingo udal-mugaratean –Gipuzkoa– Sociedad Financiera y Minera S.A. sustatzen duen Buruntza harrobiaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena), eta ebazpen honetan finkatutakoak.

Programa horretan, kontrolatutako diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginak hartzeko eta azterketa egiteko metodologia, kontrol-puntuaren kokapenari buruzko kartografia xehatua, haien maiztasuna eta guztia gauatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

E.7.– Ingurumen-zaintzako programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumen-zaintzako programaosatzen duten azterketa eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta organo substantiboaren bidez bidaliko dira Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzara. Urtero bidaliko dira harrobiaren ustiapen-aldian eta leheneratze-lanen bermealdiaren amaieran, alegia, leheneratzea egin eta hiru urtera. Ingurumen-zaintzako programaren emaitzekin batera, ingurumen-gaietan espezializatutako erakunde batek egindako txostena ere aurkeztu behar da. Txosten hori emaitzen azterketa bat izango da, aldi horretan gertatutako gorabeherak, balizko kausak eta konponbideak bereziki aipatuta, eta alde zuzenetik zehaztu ez denean, laginak hartzearen xehetasunak. Proiektuaren sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta datu horiek administrazio publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskura jarriko dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala eginarazten badigute, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-zaintzako programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere.

Ingurumen-organoak, era berean, alda ditzake babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-zaintzako programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta eta organo substantiboaren bidez, edo ofizioz. Hori guztia, ingurumen-zaintzako programan lortutako emaitzetan oinarrituta egingo da, edo ingurumen-inpaktuak saihesteko ezarri diren babes-, zuzenketa- eta konpensazio-neurriak nahikoa ez direla egiaztatzen bada.

G) Ebazpen honen aurreko apartatuetan xedatutakoari kalterik egin gabe, ondoren aipatzen diren agiriak ingurumen-organo honetara bidali beharko dira, organo substantiboaren bidez eta organo horrek proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa onartu ondoren, espedientean jaso daitezten.

G.1.– Harrobia handitzeko eta pista berria egiteko lanak hasi aurretik, jardueraren muga geografikoa identifikatzen duen mapa topografikoa, ebazpen honen D.1 apartatuari jarraikiz.

G.2.– Ebazpen hau argitaratu eta 3 hilabeteko epean, E.8 apartatuan xedatutako ingurumen-zaintzako programaren agiri bategina, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onar dezan.

G.3.– Urtean behin, ingurumen-zaintzako programaren emaitza, ebazpen honen E.7 apartatuan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.– Lau urteko epea jartzen da proiektua gauzatzen hasteko, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro bada eta proiektua gauzatzen hasi ez bada, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honi amaitu egingo zaio iraunaldia, eta utzi egingo dio dagozkion ondorioak sortzeari. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko izapidea, aipatu epea luzatzea adosten ez bada behintzat. Hori guztia, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, proiektuaren sustatzaileak alde zuzenetik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari, organo substantiboaren bitartez, zer egunetan hasiko den proiektua gauzatzen.

2022ko azaroaren 16a, asteazkena

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari eta Andoaingo Udalari.

Seigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.